

**ITSASONDON
EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN
NAGUSIA
KUDEAKETA PLANA
2009**

PLANIFIKATU DITUGUN ESPARRUAK ETA HELBURUAK

Hona hemen, HPSk egindako EBPnko zuhaitz berriaren arabera, 2009rako planifikatu ditugun esparruak eta helburuak:

ESPARRUAK	HELBURUAK
1. Familia transmisioa	1.1.- Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.
2. Euskalduntze-alfabetatzea	2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean. 2.2.-Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.
3. Irakaskuntza	3.1.-Euskarazko ikastereduak sustatu. 3.2.-Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.
4. Administrazioa	Erabilera plana
5. Lan mundua	5.1.-Lan munduan euskararen erabilera handitu. 5.2.-Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.
6. Aisia	6.1.-Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.
7. Kirola	7.1.-Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.
8. Kulturgintza	8.1.-Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu. 8.2.-Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu. 8.3.-Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu. 8.4.-Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.
9. Komunikabideak	9.1.-Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan. 9.2.- Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.
10. Teknologia	10.1.- Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planaren jarraipena egiteko, planaren diseinuan parte hartu duten udal ordezkari, eragile eta teknikoek osatuko duten batzordeak izango du eskumena. Batzorde horri, **udaleko euskararen aholku batzordea** deituko diogu. Batzorde hori 3 hilero bilduko da, hiru hilabete horietan egin dena ebaluatu eta datozen 3 hilabeteetarako egin beharrekoak zehaztu eta arduradunak izendatzeko. Horretarako jarraipen metodologia sistema honen bidez egingo dugu:

1.- Ekintza jarraiak: Urte osoan zehar burutu ala jarraipena egiten diegun ekintzak.

Hiru hilabeteetan egindakoak ebaluatu.

2.- Hiru hilabete horietan egiteko zeuden ekintzen balorazioa.

Denbora tarte horretan egiteko zehaztuta zeuden ekintzen balorazioa egingo da eta hartu beharreko zuzentze neurriak planteatu eta onartuko dira.

3.- Datozen hiru hilabetetarako zehaztutako ekintzak

Datozen hiru hilabetetarako zehaztuta dauden ekintzak nola egin eta nork egingo dituen adostuko da eta arduradunak ipiniko dira.

2009 amaieran planaren ebaluaketa egin, eta Plan estrategiko berria egiteko proposamenak zehaztuko dira.

2009ko KUDEAKETA PLANA

Esparrua / **helburuak** / **adierazleak** / **estrategiak** / **ekintzak**

1.-Familia transmisioa

1.1.-Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

- 1.1.1. Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, ama hizkuntza euskara duten haurren (%)
- 1.1.2. Etxean erabiltzen den hizkuntza
- 1.1.3. Lehen hizkuntza (> 5urte) adinaren arabera
- 1.1.4. Hizkuntzaren bilakaera (> 5urte) adinaren arabera

SENTSIBILIZAZIOA

- o Haur jaio berrien gurasoei euskarari lotutako materiala bidali: postala eta kotxeko pegatina.

KOMUNIKAZIOA

- o Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: abenduan etxez etxeko banaketa egin gutunarekin batera.

EKITALDIAK DIRUZ LAGUNDU

- o Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola elikatu ondo.
- o Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarrekin elkarlanean: Gabonetan, Santa Ageda egunean.
- o Irteerak antolatu Euskal Herrian zehar: Mendi irteera eta Gaztaina bilketa.

2.-Euskalduntzea-Prestakuntza

2.1.-Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean

- 2.1.1. Ikasle kopurua herriko euskaltegietan
- 2.1.2. Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)
- 2.1.3. Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira
- 2.1.4. Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua
- 2.1.5. Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua
- 2.1.6. Ikasleen jarraitasun-tasa
- 2.1.7. Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna
- 2.1.8. Euskal hiztunen alfabetatze maila
- 2.1.9. Kale neurketaren emaitza

SENTSIBILIZAZIOA

- Erdaldunak herri hain euskaldunetan euskarak duen garrantziaz sentsibilizatzeko kanpaina
- Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar litzaiekeen onurak azpimarratuaz.
- Etorri berrientzako harrera programa: Erroldatzera datozen etorri berriei beraientzat UEMAk egindako diptikoa banatu.

KOMUNIKAZIOA

- Eskualdeko euskaltegiarekin Itsasondorako urteko eskaintza adostu. Taldeak sortzeko aukerarik ezean, inguruko herrietara bideratu.
- Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: gutunak, kartelak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zer laguntzen duen, metodologia...).
- Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazioa kanpainak egin: mezuak zaindu, bere hizkuntzetara egokitu....

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.

IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

- UEMA diseinatzen ari den etorri berrientzako “Mintzalagun” proiektua jorrazteko saiakera egin.

2.2.-Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu

- 2.2.1. Helduen prestakuntza euskaraz, edo batez ere euskaraz, ematen duten akademia/zentro/elkarteak (%)
- 2.2.2. Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak (%)
- 2.2.3. Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak (%)
- 2.2.4. Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan (%)

SENTSIBILIZAZIOA

- Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak euskaraz izatea sustatu.

3.-Irakaskuntza

3.1.-Euskarazko ikastereduak sustatu

- 3.1.1. 0-3 urte bitarteko udalerriko haur kopurua
- 3.1.2. 0-3 bitarteko plaza kopurua euskaraz
- 3.1.3. 0-3 bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)
- 3.1.4. Haur eta Lehen Hezkuntzako plaza kopurua D ereduan

- 3.1.5. Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D ereduan (%)
- 3.1.6. DBHko plaza kopurua D ereduan
- 3.1.7. DBHko matrikulazioa D ereduan (%)
- 3.1.8. Batxilergoko plaza kopurua D ereduan
- 3.1.9. Batxilergoko matrikulazioa D ereduan (%)
- 3.1.10. Lanbide Heziketako plaza kopurua D ereduan
- 3.1.11. Lanbide Heziketako matrikulazioa D ereduan (%)
- 3.1.12. Etorri berrien matrikulazioa D ereduan (%)

SENTSIBILIZAZIOA

- DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: matrikulazio garaian diptikoa bidali:
 - Itsasondoko eskola amaitzen duten haurren gurasoei diptikoa
 - 18 urte betetzen dituzten gazteei diptikoa

KOMUNIKAZIOA

- Gurasogai eta guraso berriei informazioa eman Itsasondoko haurtzaindegia eta inguruko herrietako euskarazko haurtzaindegien inguruan: 2 urteko haurren gurasoei.

ESKAITZA SUSTATU

- Haurtzaindegian euskara hizkuntza bakarra izango dela bermatu.
- Herri eskolarekin elkarlanean euskara sustatu: Eskolarekin elkarlana sustatu.

LAGUNTZA EKONOMIKOA ESKAINI

- Oro har Euskal Herrian euskara bultzatzen ari diren hezkuntza erakunde edo elkarteak laguntza: Diru-laguntzak Herri Urrats eta Nafarroa Oinezi.
- Eskolak herriko haurrentzat antolatzen dituen ekimenak, euskaraz izatearren, diru-laguntzak eman: “Udalekuak”, “Musika eta eskola”

4.-Administrazioa

4. plangintzaldirako diseinatutako AEBE erabilera planarekin aurrera jarraitu

Planean adierazitako adierazleak

SENTSIBILIZAZIOA

- Arduradun politikoen hizkuntza irizpideen dekalogoaren lanketa jarraipen batzordeetan.
- Langileentzako dekalogo sortu hizkuntza irizpideen lanketa egiteko.
- Behatokiarekin egindako hitzarmenaren bidez, langile eta arduradun politikoei egiteko salaketa sistema martxan jarri.

PRESTAKUNTZA

- Arduradun politiko eta langileentzako UEMAk bideratzen duen internet bidezko hileroko prestakuntza.
- 3 eta 4 HE duten langileentzako zuzeneko prestakuntza eskaini eskualdeko udalekin batera taldeak sortzeko aukera azterretuz (UEMA).

NORMALIZAZIO EKINTZAK

- Dokumentuen egokitzapenak (UEMA egokitzen ari denak txertatu)
- Administrazio publikoekin harremanen jarraipena.
- Hornitzaile eta kanpo zerbitzuekiko harremanen jarraipena.
- Baliabide informatikoen normalizazioan eragin.

JARRAIPEN ETA EBALUAZIOA

- Arlokako jarraipena egiteko UEMAk sortu duen jarraipen sistema martxan jarri.
- 3-6 hilero planean hartutako neurrien jarraipen bilerak.

5.-Lan mundua

5.1.-Lan munduan euskararen erabilera handitu

5.1.1. Udalerriko enpresak, guztira

5.1.2. Erabilera plana duten enpresak (%)

5.1.2. Euskararen erabilerari lotuta Bikain ziurtagiria duten enpresak (%)

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Kanpo eragile baten bitartez Itsasondoko enpresaren batek euskara normalizatzeko plana egitea erabakiko balu, dituen laguntza ekonomikoen inguruko informazioa eman eta udalak nola lagundu aztertu.
- Kontseiluari diru-laguntza

5.2.-Merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera handitu

5.2.1. Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira

5.2.2. Euskararen erabilerari lotutako *Bikain zigilua* duten establezimenduak (%)

SENTSIBILIZAZIOA

- UEMArekin bidez, urteko kanpainen barruan (merkealdia...), herriko merkataria eta ostalariengan euskaraz lan egitearen onurak gogorarazi.

KOMUNIKAZIOA

- UEMArekin doako euskara zerbitzua birgogorarazteko abenduko kanpaina berezia.
- Negozio berrietako jabeek jakitera eman UEMAk ematen dien doako zerbitzua, zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala.

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- UEMArekin euskara zerbitzuaren eskaintza:

✚ Ohar eta kartelak euskaraz jartzeko laguntza

Itzulpen laburrak

Faktura takoak

Merkealdia tirak

Irekita / itxita

- Arlokako hiztegiak banatu.

6.-Aisia

6.1.-Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu

6.1.1. Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%)

6.1.2. Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)

KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: kartelak, UEMaren web orriko agendara bidali, komunkabideak.

ESKAINZA SUSTATU

- Gazte eta helduentzako aisialdi ekintzak antolatu: Gaztelekua

EUSKARAZKO AISIA ESKAINZA SUSTATZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK

- Haurrentzako ekintzak antolatzen dituzten elkarteei diru-laguntzak eman: Udaleku irekiak, Musika euskaraz, eskolaz kanpoko ekimenak.
- Gazte eta helduentzako aisialdi ekintzak antolatzeagatik diru-laguntzak eman

7.-Kirola

7.1.-Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu

7.1.1. Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)

7.1.2. Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)

7.1.3. Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)

7.1.4. Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (%)

7.1.5. Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)

ESKAINZA SUSTATU

- Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu.

8.-Kulturgintza

8.1.-Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu

8.1.1. Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak (%)

8.1.2. Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)

SENTSIBILIZAZIOA

- Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi: UEMAREN web orrira Itsasondoko kultur agenda bideratu, eta herritarrei jakinarazi herri euskaldunetako agenda ikusgai izango dutela web horretan.

ESKAINZA SUSTATU

- Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...).
- Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu.
- Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...
- Helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...
- Euskarazko kultur zirkuitoetan parte hartu: kultur elejira

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini (zine aretoak, megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...).
- Baliabide teknikoak eskaini kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten papeleria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin: hizkuntza aholkularitza.

8.2.-Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu

- 8.2.1. Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (€)
- 8.2.2. Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua
- 8.2.3. Lagundutako pertsona/talde kopurua

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa.

8.3.-Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu

- 8.3.1. Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)
- 8.3.2. Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)

EKITALDIAK ANTOLATU

- Zentro publikoetan euskarazko aldizkari eta prentsa irakurgai utzi.
- Liburutegian euskarazko liburuen presentzia areagotu

8.4.-Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

- 8.4.1. Tokian tokiko hizkeraren erabilera (kale neurketarekin batera)
- 8.4.2. Sortu eta hedatutako produktu kopurua, euskarria edozein delarik ere (liburuak, jolasak, ...)
- 8.4.3. Informazio honen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua

EKITALDIAK ANTOLATU

- Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak abian jarri.

9.-Komunikabideak

9.1.-Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan

- 9.1.1. Euskara hutsezko komunikabideak (%)
- 9.1.2. Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)

ESKAINZA SUSTATU

- Udalerri bakoitzaren beharretara egokituko den euskarazko komunikabideen bideragarritasuna aztertu:
 - ✚ Udal aldizkaria euskaraz argitaratu
 - ✚ Web orriaren euskararen presentzia areagotu

LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

- Eskualdeko euskarazko komunikabideen hedapena diruz lagundu: Hitzari diru-laguntza.

9.2.-Publizitatean euskararen presentzia bultzatu

- 9.2.1. Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)
- 9.2.2. Enpresa, merkatari eta elkarteei eskainitako baliabideak publizitatea euskaraz egiteko

SENTSIBILIZAZIOA

- Enpresa, merkatari eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko.

ESKAINZA SUSTATU

- Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskarazko komunikabideak lehenetsi.
- Udalak egiten dituen publizitate ekimenak euskaraz egin.

10.-Teknologia berriak

10.1.-Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu

- 10.1.1. Udaleko web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)
- 10.1.2. Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak
- 10.1.3. Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (€)
- 10.1.4. Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%) eta horien erabilera (%)

ESKAINZA SUSTATU

- Euskarazko eskaintza bermatu KZ gunetako ikastaroetan.
- Udalaren web orritik UEMAren web orrirako linka jarri.

11.-Sentsibilizazioa

11.1.-Herritarren artean euskararen inguruko sentsibilizazioan eragin

10.1.1. Herritarren artean euskararen aldeko jarrera dutenak (%)

- Hizkuntza eskubideen inguruko lanketa egin herrian: UEMAk Behatokiarekin egindako hitzarmenean oinarrituta, Elebide eta Behatokira salaketak biderako kutxen kanpaina abian jarri.

2009 KRONOGRAMA

2009ko KUDEAKETA PLANAREN KRONOGRAMA

EKINTZAK	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua
Jaio berrien gurasoei postala eta pegatina												
Euskarazko produktuen katalogoa												
Familia aintzat hartuta antolatutako ekitaldiak												
Familia aintzat hartuta ekimenak antolatzegatik diru-laguntzak eman												
Etorri berrientzako harrera programa												
Korrikari diru-laguntza												
Euskaltegiarekin urteko eskaintza adostu												
Helduen eta etorkinen euskara ikastaroetako matrikulazio kanpaina (bertan eman udalaren diru-laguntzen berri)												
Euskara ikasteko diru-laguntzak eman												
“Mintzalagun” proiektua												
Helduentzako era guztietako ikastaroak euskaraz antolatu												
Itsasondoko eskola amaitzeaz dauden haurren gurasoei gutuna												
18 urteko gazteei ikasketak euskaraz jarraitzeko gutuna												

Gurasogai eta guraso berriei informazioa euskarazko haurtzaindegien inguruan.												
Haurtzaindegian euskara hizkuntza bakarra izango dela bermatu												
Eskolarekin elkarlanean euskara sustatu												
Ikastolen jaiei dirulaguntzak												
Eskolari dirulaguntzak: Udalekuak, Musika eta eskola ekimena												
AEBE planean erabakitako neurrien jarraipen bilerak												
Arduradun politikoen dekalogoaren lanketa												
Langileen dekalogoak sortu eta langileei aurkeztu												
Behatokiarekin elkarlanean salaketa sistema martxan jarri												
Internet bidezko prestakuntza: langile eta arduradun politikoentzako												
3 eta 4 HE duten langileentzako prestakuntza ikastaroa												
Dokumentuen egokitzapena												
Administrazio publikoekin harremanen jarraipena												
Hornitzaile eta kanpo zerbitzuekiko harremanen jarraipena												
Baliabide informatikoen normalizazio ekintzak												
Arlokako jarraipen egiteko sistema martxan jarri												
Enpresei informazioa eman, eskatzen badute, erabilera planen inguruan												
Kontseiluari diru-laguntzak												
Merkataritza: urteko kanpaina orokorra												
UEMAren doako euskara zerbitzua birgogorarazi.												
Merkatarientzako doako euskara zerbitzua eman (UEMA)												
UEMAko euskara zerbitzuaren eskaintza merkatariei												
Arlokako hiztegiak banatu												
Euskarazko aisia informazioa banatu												

Haur, gazte eta helduentzako aisia ekimenak antolatu												
Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu												
Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi												
Herriko jaietako ekitaldietan euskararen erabilera bermatu												
Haur, gazte eta helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu												
Kultur elejiran parte hartu												
Euskarazko kultur ekintzetarako baliabideak eskaini												
Kultur elkarteei hizkuntza aholkularitza												
Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa												
Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak												
Udal aldizkaria euskara hutsean argitaratu												
Web orrian euskararen presentzia areagotu												
Komunikabideei laguntza: Hitzari diru-laguntza												
Sentsibilizazioa publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko												
Udalaren publizitate ekimenak euskaraz												
KZ gunean euskararen presentzia areagotzeko neurriak												
UEMAren web orrirako linka jarri udaleko webean												
Hizkuntza irizpideen inguruko kanpaina												

2009 AURREKONTUA

2009ko KUDEAKETA PLANAREN AURREKONTUA

EKINTZAK	AURREKONTUA
Jaio berrien gurasoei postala eta pegatina	40
Euskarazko produktuen katalogoa	90
Familia aintzat hartuta antolatutako ekitaldiak: San Juan sua, Santa Ageda, Ijitu eguna, Talo festa, auzolana.	2.316
Familia aintzat hartuta ekimenak antolatzegatik diru-laguntzak eman: Olentzero eta Kultur topagunea	810
Etorri berrientzako harrera programa	80
Euskaltegiarekin urteko eskaintza adostu	0
Helduen eta etorkinen euskara ikastaroetako matrikulazio kanpaina (bertan eman udalaren diru-laguntzen berri)	40
Euskara ikasteko diru-laguntzak eman	2.500
“Mintzalagun” proiektua	80
Helduentzako era guztietako ikastaroak euskaraz antolatu: Gimnasia eta Sendabelarrak	2.000
Korrikari diru-laguntza	?
Itsasondoko eskola amaitzear dauden haurren gurasoei gutuna	5
18 urteko gazteei ikasketak euskaraz jarraitzeko gutuna	5
Gurasogai eta guraso berriei informazioa euskarazko haurtzaindegien inguruan.	5
Haurtzaindegian euskara hizkuntza bakarra izango dela bermatu	0
Eskolarekin elkarlanean euskara sustatu	0
Ikastolen jaiei dirulaguntzak	1.050
Eskolari dirulaguntzak: Udalekuak, Musika eta eskola ekimena	8.250
AEBE planean erabakitako neurrien jarraipen bilerak	180

Arduradun politikoen dekalogoaren lanketa	150
Langileen dekalogoia sortu eta langileei aurkeztu	125
Behatokiarekin elkarlanean salaketa sistema martxan jarri	125
Internet bidezko prestakuntza: langile eta arduradun politikoentzako	350
3 eta 4 HE duten langileentzako prestakuntza ikastaroa	600
Dokumentuen egokitzapena	650
Administrazio publikoekin harremanen jarraipena	150
Hornitzaile eta kanpo zerbitzuekiko harremanen jarraipena	176
Baliabide informatikoen normalizazio ekintzak	350
Arlokako jarraipen egiteko sistema martxan jarri	250
Enpresei informazioa eman, eskatzen badute, erabilera planen inguruan	0
Kontseiluari diru-laguntzak	1.202
Merkataritza: urteko kanpaina orokorra	20
UEMAren doako euskara zerbitzua birgogorarazi.	25
Merkatarientzako doako euskara zerbitzua eman (UEMA)	50
UEMAko euskara zerbitzuaren eskaintza merkatariei	20
Arlokako hiztegiak banatu	15
Euskarazko aisia informazioa banatu	0
Haur, gazte eta helduentzako aisia ekimenak antolatu: Zinema eta kantu afaria	270
Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu: herri krosa	400
Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi	Kulturan
Herriko jaietako ekitaldietan euskararen erabilera bermatu	Kulturan

Haur, gazte eta helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu	16.700
Kultur elejiran parte hartu	Kulturan
Euskarazko kultur ekintzetarako baliabideak eskaini	0
Kultur elkarteei hizkuntza aholkularitza	20
Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa	0
Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak	100
Udal aldizkaria euskara hutsean argitaratu	6.000
Web orrian euskararen presentzia areagotu	0
Komunikabideei laguntza: Hitzari diru-laguntza	1.800
Sentsibilizazioa publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko	75
Udalaren publizitate ekimenak euskaraz egitea bermatu	0
KZ gunean euskararen presentzia areagotzeko neurriak	70
Hizkuntza irizpideen inguruko kanpaina	100
GUZTIRA	